

fagorederlantaldea

Jokabide

Kodea



Berrikuspen zk.	Data	Berrikuspena
01	2017ko irailaren 22an	Lehenengo proposamena

1.	SARRERA	4
2.	APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZE BEHARRA	5
3.	JOKABIDE ARAU OROKORRAK	6
3.1	Portaera profesional osoa izatea	6
3.2	Legea errespetatu, hala nola Fagor Ederlan Taldearen barruko arauak eta kontratuak	6
3.3	Fagor Ederlan Taldearen irudia eta izena sustatu	7
4.	PERTSONAK	8
4.1	Giza eskubideak eta pertsonak errespetatu	8
4.2	Lan gogorak eta neketsuak debekatu	8
4.3	Gizakien trafikoa debekatu eta atzerriko hiritarrak babestu	8
4.4	Umeen lana debekatu eta gazteak babestu	9
4.5	Lan baldintzak	9
4.6	Soldatak eta irabaziak	9
4.7	Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza	10
4.8	Elkartzeko askatasuna, Hitzarmen Kolektiboa eta kanpoko jarduerak	10
4.9	Etengabeko formazioa	10
5.	SEGURTASUNA ETA OSASUNA LANEAN	11
6.	USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA	12
6.1	Ustelkeria pribatua eta publikoa prebenitu	12
6.2	Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitu	12
6.3	Merkatua eta kontsumitzaileen lehiaketa libre a babestu	13
6.4	Interes Gatazkak	13
7.	INGURUMENA	14
8.	TRATUA BAZKIDE KOMERTZIAL ETA HIRUGARRENEKIN	15
8.1	Betebeharrak bete Administrazio Publikoarekin	15
8.2	Harremanak hornitzaile, pertsona elkartu eta bezeroekin	15
9.	INFORMAZIOAREN KUDEAKETA	16
9.1	Intimitatea babestu. Izaera pertsonaleko datuak erabili	16
9.2	Informazio konfidentzialaren tratamendua eta babesa. Sekretu profesionala	16
9.3	Fagor Ederlan Taldeko ondare errealitatean egiazkotasuna eta zehaztasuna	16
10.	FAGOR EDERLAN TALDEKO JABETZA BABESTU ETA ERABILI	17
10.1	Fagor Ederlan Taldeko aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua	17
10.2	Segurtasun informatikoa eta jabetza intelektuala eta industrial a babestu	17
11.	KODEA APLIKATU. KOMUNIKAZIOAK ETA JARRAIPENA	18
11.1	Indarrean sartu	18
11.2	Jokabide kodea interpretatu	18
11.3	Betetze Batzordea	19
11.4	Kanal Etikoa ez betetzea eta komunikazioa	19
11.5	Jakinarazpenen konfidentziasuna eta errepresalien debekua	19
11.6	Jakinarazpenak tramitatu	20

1. SARRERA

Fagor Ederlan Taldearen helburua da bere jokabidea eta osatzen duten Pertsonenak indarrean dagoen legeei erantzutea eta baita Jokabide Kode honetan zehaztutako Printzipio Etikoei ere.

Jokabide Kodeak Fagor Ederlan Taldean jada badagoen enpresa kultura finkatzea ere bilatzen du, eta azken helburu bezala dauka:

- > Fagor Ederlan Taldean lan egiten duten pertsonei gida bezala balio izatea euren jardunean eta Fagor Ederlan Taldeko beste Pertsonekin izan beharreko harremanetan, hala nola, Hornitzaile, Pertsona Elkartu, Bezero, Administrazio Publiko eta gizartearekin orokorrean.
- > Delituzko portaerak eta Pertsonen zilegi ez den edozein portaera prebenitu euren jarduera profesionala betetzean.

Jokabide Kodeak Fagor Ederlan Taldean dagoen enpresa kultura finkatzea ere bilatzen du.

Fagor Ederlan Taldeak ez du jokabide kode honen aurkako ekintza bat bera ere onartzen. Jokabide Kode honetan zehaztutako Printzipio Etikoek aplikazio errealak eta eraginkorra izan dezaten zainduko da eta ez betetzeak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu Kanal Etikoaren bidez.



2. APLIKAZIO ESPARRUA ETA BETETZE BETEBEHARRA

Jokabide Kodean eta Compliance Programean jasotako Printzipio Etikoak eta jokabide arauak Fagor Ederlan Taldea osatzen duten Pertsona guztientzako derrigor bete beharrekoak dira.

Fagor Ederlan Taldea osatzen duten Pertsonak Jokabide Kode hau eta bertako printzipio etikoak ezagutu eta betetzeko betebeharra daukate.

Jokabide Kodea Kontrolatutako Sozietateei aplikagarria da eta ahal den neurrian Fagor Ederlan Taldean parte hartzen duten gainerako sozietateei ere bai.

Jokabide Kodea ahal den neurrian Fagor Ederlan Taldeko Hornitzaile, Pertsona Elkartu eta Bezeroei zabalduko zaie.

Jokabide Kodea Fagor Ederlan Taldeak garatzen dituen ekintzei aplikatuko zaie ahal den guztian edozein eremu geografikotan, bai lokal zein nazioartean.





3. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

3.1 Jokabide profesional osoa izatea

Fagor Ederlan Taldeko pertsonen jokabidea profesionaltasun eta osotasunean oinarritu beharko da.

- > Profesionaltasuna portaera arretatsua, arduraduna, zentzuduna eta eraginkorra da.
- > Osotasuna portaera leiala, zintzoa eta fede onekoa da, norberekiko eta besteekiko errespetuduna jarduera profesionala burutzean, Pertsonarengan jarritako konfiantzarekin bat datorrena.

Pertsonak Jokabide Kode honetan ezarritako printzipio etikoak aplikatuko dituzte norberekiko eta besteenganako eta ez dute euren jarduera profesionala agindutakoa ez den beste helburutara bideratuko.

3.2 Fagor Ederlan Taldean onartutako legeak, barruko arauak eta kontratuak errespetatu

Pertsona guztiek indarrean dauden legeak errespetatu beharko dituzte euren jarduera profesionalak garatzean Fagor Ederlan Taldea aritzen den lurralde guztietan.

Pertsonak Jokabide Kode hau bete beharko dute, baita Fagor Ederlan Taldeko Compliance Program osatzen dituzten Kontrolak ere.

Pertsonak Fagor Ederlan Taldeak hirugarrenekin egindako kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak errespetatu beharko dituzte, bai eta jarduera profesionala burutzen duten herrialdeetako erabilera eta praktika onak ere.

Fagor Ederlan Taldea lotzen duten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak edo kontratuak ez ezagutzeak, edo Fagor Ederlan Talde barruan ez betetzea orokorra izatearen araudioak ez dute justifikatuko horiek ez betetzea.

Jarduera profesionalean Fagor Ederlan Taldean indarrean dagoen Legea, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuaren aurkako jarraibideak edo aginduak jasotzeak ez die erantzukizunik kentzen jarraibide edo agindu horien arabera ekiten duten Pertsoneri.

Zuzendariak eta Pertsona taldeak kudeatzen dituztenek egin beharrekoa:

- > Dagokien jardueraren arloan legea, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak hobekien ezagutzen dituztenak izatea.
- > Fagor Ederlan Taldean jokabidean erreferenteak izatea.
- > Euren ardurapean dauden pertsonak Fagor Ederlan Taldeari eragiten dioten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak ezagutu eta betetzea ahalbidetuko dien informazioa eta formazioa jasotzen dutela zaindu eta ziurtatu.

Arau edo kontratu baten aplikazio eta interpretazioaren zalantzarik izanez gero, Pertsonak zuzeneko arduradunarekin kontsultatu beharko dute eta azken aukera moduan, Betetze Batzordearekin.

3.3 Fagor Ederlan Taldearen irudia eta izena sustatu

Fagor Ederlan Taldeak izen sendoa dauka bere esperientzia zabal eta pertsona talde fidagarri eta leialagatik, pertsona talde hau Fagor Ederlan Taldeko kultura osatzen duten Printzipio Etikoak eta egiten jakitearekin konprometituak daude.

Pertsona guztiek zaindu behar dute Fagor Ederlan Taldeko irudia eta izena bere jarduera profesional guztietan. Hornitzaiile, Pertsona Elkartu eta Bezeroek ere korporazioaren irudia eta izena errespetatu eta ondo erabiltzen dutela zainduko dute.





4. PERTSONAK

4.1 Giza eskubide eta Pertsonen errespetua

Fagor Ederlan Taldeak Giza Eskubideen Deklarazioaren 1948ko Nazio Batuen definizioaren araberako printzipio nagusiak bere egiten ditu.

Pertsona guztiak sustatuko dute maila profesional guztietan elkarrekiko errespetua, osotasuna, zintzotasuna, konfiantza, lankidetzeta eta esfortzua taldean lan egitean, laneko giro ona lortzeko helburuarekin.

4.2 Lan astunak eta neketsuen debekua

Fagor Ederlan Taldea:

- > Ez da indarrik erabiliko (*).
- > Ez dira lankideak lan astunak edo esklabotasunekoak egitera behartuko.

* Lan astuntzat hartzen da zigor edo norberaren gauzak kentzeko mehatxupean egindako lana (hala nola NAN, pasaporteak, etab.) pertsonak bere burua eskaini ez duenean lan hori egiteko.

4.3 Pertsonen trafikoaren debekua eta atzerriko hiritarren babesa

Fagor Ederlan Taldeak atzerriko hiritarren zaintza bere gain hartzen du dagokion atzerriko araudiaren betetzearen bidez.

Fagor Ederlan Taldea osatzen duten pertsonak ez dute Estatu batekoa ez den pertsona bat Estatuan egon edo pasatzen lagunduko atzerriarren sarrera edo pasatzearen gaineko legedi aplikagarria kaltetuz.

4.4 Umeen lanaren debekua eta adin txikikoak babestea

Fagor Ederlan Taldeak ez du umerik kontratatuko (*) eta langile guztien jaiotze data agertzen den erregistro bat izango du.

Gure plantetan adin txikikoren baten presentzia antzemanaz gero, Kudeaketa Sozialaren Sailean jakinaraziko da dagokion kontratua desegiteko, eta arrazoiak aztertu eta dagozkion ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak zehaztuko dira.

* 1973ko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT-ILO) arabera umetzat hartzen da 15 urtetik beherako pertsona oro, bertako legeek adin altuagoa edo derrigorrezko eskolaratzea zehazten duten kasuetan izan ezik, eta hala denean adin altuagoa aplikatuko da.

Tokiko legeak 13 eta 15 edo 12 eta 14 urte bitarteko umeek lan egitea baimendu dezakete kasu hauetan:

- > Adin txikikoaren osasuna edo garapena ez dutenean mintzen; eta
- > Eskolara edo formazio programetara joatea kaltetzen ez dutenean.

4.5 Lan Baldintzak

Lan kontratuak: indarrean dagoen legea betetzea

- > Fagor Ederlan Taldeko langileak herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera kontratatuak izan beharko dira eta idatzitako kontratu bat (edo baliozko dokumentua) egon behar da.

Lan jarduna eta aparteko orduak

- > Fagor Ederlan Taldeko langileen lan jarduna edo laneko egutegiak ez du legezko muga gainditu behar inolaz ere.

Baimenak

- > Fagor Ederlan Taldeko langileek herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren araberako baimenak izan behar dituzte (gaixotasun, opor, amatasun, jai ofizialak eta baliokideak).
- > Euren lana ziur egiteko langileek nahikoa formazioa badutela ziurtatu beharko da.

4.6 Soldatak eta irabaziak

Soldatak

- > Fagor Ederlan Taldeak bere langileei gutxienez gutxienezko soldata interprofesionala ordaindu beharko die, herrialde bakoitzeko legeen arabera (Legeak ezarritako lan egin beharreko orduak oinarritzat hartuta).
- > Soldatak herrialde bakoitzeko legeek zehazten duten arabera egindako lanarekiko erregulartasunez ordainduko dira.

Aparteko orduak ordaintzea

- > Fagor Ederlan Taldeko langileek egindako aparteko orduen konpentsazioa jaso beharko dute legeak zehazten duenaren arabera.

Onurak

- > Fagor Ederlan Taldeak bere lankideek legez eskubidea daukaten onurez hornitu beharko ditu (mediku aseguruak, gizarte segurantzak, pentsioak eta baliokideak).

4.7 Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Fagor Ederlan Taldeak dauden ezberdintasun kulturalak eta herrialde bakoitzean aplikatzen diren estandar ezberdinak onartzen ditu.

Fagor Ederlan Taldean jarduteko Printzipio Etiko bat da lana lortzeko eta laneko promozioan aukera berdintasuna eskaintzea, horretarako sexua, orientazio sexuala, arraza, ezgaitasuna, gaixotasuna, erlijioa edo diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein ezaugarriengatik ezberdintasunik egingo ez dela ziurtatuta.

4.8 Elkartu, Negoziazio Kolektiboa eta kanpoko ekintzetarako askatasuna

Fagor Ederlan Taldeak berau osatzen duten pertsonak jarduera sozial eta publikoak egitea errespetatzen du, beti ere bere jardun profesionalean eraginik ez badu.

Fagor Ederlan Taldeak sindikatu, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa onartzen ditu lan esparruan.

Pertsonak alderdi politiko edo helburu publikoak dituzten beste erakunde batzuekin, instituzio edo elkarteekin izan ditzaketen loturak pertsonalak izango dira, Fagor Ederlan Taldearekin erlazioa ekidinez.

4.9 Etengabeko formazioa

Fagor Ederlan Taldeak Pertsonen konpetentziak eta ezagutzen formaziorako bitartekoak jarriko ditu, euren garapen profesionala errazteko helburuarekin. Formazio etengabea bereziki Korporazio Erantzukizun Soziala, Gai Sozialak eta Ustelkeriaren aurkako Politika gaitan egingo da.

Pertsona guztiek egin behar dituzten Fagor Ederlan Taldeak bere eskura jartzen dituen formazio ikastaroak Fagor Ederlan Taldearen barruan dituzten funtzioak eta jarduerak hobetzeko eta formazioaren aprobetxamendurik onena ateratzeko ahalegina egingo dute.





5. SEGURTASUNA ETA OSASUNA LANEAN

Fagor Ederlan Taldeak laneko arriskuen gaitan egin beharreko ekintzak egingo ditu prebentzio eta etengabeko hobekuntza ikuspegiarekin.

Fagor Ederlan Taldeak bere bazkide eta langileei lan egiteko leku eta prozesu ziuerra, garbia eta osasuntsua eskainiko die, herrialde bakoitzeko legeak betez.

Pertsonen euren jardun profesionalerako beharrezko segurtasun neurriak, ergonomia eta higienarako bitartekoak eskainiko zaizkie, Pertsonen bizitza, osasuna eta osotasun fisikoa arriskuan jarri ez dadin.

Pertsonen uneoro errespetatuko dituzte laneko segurtasun eta osasuneko prebentzio neurriak, Fagor Ederlan Taldeak ezarritako baliabideak erabilia eta lantaldeetako kideek euren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuta.





6. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

6.1 Ustelkeria pribatu eta publikoaren prebentzioa

Fagor Ederlan Taldeak ez du onartzen zilegia ez den moduan Fagor Ederlan Taldetik kanpo dauden pertsonen nahian eragitea irabazi edo abantailen bat lortzeko. Ustelkeria, eroskeria edo kalterako ekintzak guztiz debekatutako daude, baita zilegia ez den moduan edozein abantaila mota lortzeko eskaintza edo promesa zuzen edo zeharkakoak ere.

Ezin da Influentzia-trafikoa sor dezakeen inolako ekintzarik egin, eta batez ere jarraian laburtzen direnak:

- > Zuzenean eragin funtzionario publiko edo agintari batean.
- > Zuzenean eragin hirugarren baten eskaintza onartuta.
- > Zeharka eragin hirugarren baten zerbitzuen bidez.

Beraz, Pertsonak Hornitzaile, lankidetzaren bat duten pertsona, Bezero, Administrazio Publiko nazional eta nazioartekoekin dituzten harremanetan portaera zuzena izan beharko dute, partikular, agintari edo funtzionario publikoaren inpartzialtasun edo lege aginduak bortxatzera eraman barik.

Opariak edo erregaluak Fagor Ederlan Taldea markaren irudia sustatzera bideratuta daude. Ezin dira opari edo erregaluak eman ez onartu, zuzenean edo zeharka, jarduera profesionalean Fagor Ederlan Taldeko harremanetan zilegi ez den moduan eragiteko.

Opari eta erregaluak eman eta onartu daitezke balio ekonomiko mugatua edo sinbolikoa dutenean eta kortesia edo arreta komertzialerako direnean.

Ez dira onartuko mantenu, egonaldi edo bidaiak gastuak ordaintzeko hirugarrenen gonbidapenak, aurretik Betetze Zuzendariaren baimena lortu eta justifikatu ezean.

Debeku hauek dagokion partikularra, agintaria edo funtzionario publikoarekin familia edo lagun harremana dutenengana ere zabaltzen dira.

6.2 Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitu

Fagor Ederlan Taldeak kapitalen zuritzea eta terrorismoa finantzatzearen gaineko aplikagarriak zaizkion lege nazional eta nazioarteko guztiak beteko ditu.

Horretarako ezarritako bezeroak identifikatzeko, informazioa eta barruko kontrolerako neurriak aplikatuko dira eta kapitalen zuritzea eta zilegi ez den edozein jarduera finantzatzearen aurka lankidetzan jardungo da

6.3 Lehiakortasun librea, merkaturua eta kontsumitzaileak babestea

Pertsonak lehiakidearen abusua edo zilegi ez den murrizketatzat jo daitekeen edozein jokabide mota ekidingo dute. Fagor Ederlan Taldeak edozein erakundetan parte hartzeko kontuan hartuko dira ekintza horien praktikatik eratorritako prezioak jartzeko askatasuna errespetatzea bermatzea eta orokorrean, indarrean dagoen legedia betetzea.

Ez da Fagor Ederlan Taldea, bere lehiakide zein hirugarrenen jardura desleial edo publizitate engainagarriak egingo.

6.4 Interes Gatazkak

Fagor Ederlan Taldeko Pertsonak Interes gatazka guztiak ekidin behar dituzte.

Interes Gatazkatzat joko da Fagor Ederlan Taldeko Pertsonaren baten interes pertsonala eta enpresa beraren interesa talkan sartzen direnean edo eraginda edo desitxuratuta geratzen denean. Interes pertsonala egongo da gaiak Pertsonari zuzenean eragiten dionean edo Pertsonari lotutako beste bati.

Pertsonari lotutakotzat joko da Pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona; Pertsona edo ezkontidearen (edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona) familian aurreko eta ondorengo adarrekoak, neba arrebak; baita pertsona edo berari lotutako pertsonak administrazio edo zuzendaritza karguren baten kontrola dutenean, edo, eragin esanguratsua sozietate edo enpresa horien erabaki finantzario eta operatiboetan, zuzenean edo zeharka.

Interes Gatazkak eragindako Pertsonak ez du Interes Gatazkak eragindako erabakietan parte hartu edo eragingo, ezta erabaki horiek aztertzen diren bileretan parte hartuko ez intereseko gatazka horrek sortzen duen informaziorik jasoko.





7. INGURUMENA

Fagor Ederlan Taldeak enpresa Jardueraren garapenarekin nahiz ingurumenaren babesarekin bateragarria izango den garapen iraunkorraren eredia planteatzen du, indarrean dagoen legedia betez eta prebentzio eta etengabeko hobekuntza ikuspegiarekin, horretarako beharrezko bitarteko eta gaitasunak Pertsonen eskura jarritz.

Pertsonak, bere gaitasunen esparruan, ingurumena zaindu eta lege eskakizunak betetzeko konpromiso aktibo eta arduratsua hartzen dute, bere jardueraren ingurumeneko inpaktua murrizteko Fagor Ederlan Taldean ezarritako gomendioak eta prozedurak jarraituta. Pertsonek Fagor Ederlan Taldeak bere eskura jarritako instalazioak, aktiboak eta baliabideetatik eratorritako inpaktua gutxitzeko ahalegina egin beharko dute bereziki.

Fagor Ederlan Taldeak garatutako urbanizazio, eraikuntza edo eraikitze jarduerak kasu bakoitzean aplikagarria den lege urbanistiko eta administratiboak guztiz errespetatuz egingo dira.





8. TRATU BAZKIDE KOMERTZIAL ETA HIRUGARRENEKIN

8.1 Administrazio Publikoekin betebeharrak betetzea

Agintariak, organismo erregulatuak eta Administrazio Publikoekin izan beharreko harremanak lankidetzan eta gardentasun printzipioetan planteatuko dira.

Fagor Ederlan Taldeak Administrazio Publikoekin dituen betebeharrak beteko ditu eta, bereziki, Ogasun Publikoa eta Gizarte Segurantzarekin, hala nola, diru laguntzak jasotzen direnekin edo Fagor Ederlan Taldeak kontratu publikoak esleipena duenekin.

Guztiz debekatzen dira zerga betebeharrak ekidin edo irabaziak lortzeko Ogasun Publikoa, Gizarte Segurantzaren edo antzeko organismoen kalterako portaerak.

Administrazio Publikoetara eskatu edo jasotako laguntzak erabilera egokia izatea ziurtatuko da, bere lorpenerako baldintzak faltsutzea edo hasierako erabileratik ezberdina dena ematea ekidinda. Guztiz debekatuta dago jatorri publikoa duten fondo edo kredituetara sartzeari aurretik Fagor Ederlan Taldeko finantza sailaren baimenik izan barik.

Fagor Ederlan Taldeak ez du bere izenean edo pertsona bitartekariarekin, alderdi edo hautagai politikoaren finantzazio ilegalik egingo ez dohaintza, ezta ekarpenik ere, ezta mailegu edo aurrerakin moduan ere.

8.2 Harremanak Hornitzaile, Pertsona Elkartu eta Bezeroekin

Hornitzaile, Pertsona Elkartu eta Bezeroen aukeraketa prozesuetan aukera, kostua eta jasagarritasun irizpideak aplikatu beharko dituzte Pertsona guztiek, beti ere Fagor Ederlan Taldearen interesen defentsan jardunez.

Hornitzaile, Pertsona Elkartu eta Bezeroek Jokabide Kode hau ezagutzea sustatuko da eta ahal den neurrian, betetzea, bertan jasotzen diren printzipio etikoen edukia hobeto aplikatu ahal izateko.



9. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

9.1 Intimitatea babestu. Izaera pertsonaleko datuen erabilera

Fagor Ederlan Taldeak Pertsonen intimitate eskubidea errespetatzen du, bere adierazpen guztietan, bai eta Internet bidezko edo beste komunikabideetatik Pertsonak dituzten komunikazioak ere. Bereziki, pribatutasuna eta datu pertsonalen eskubideak errespetatuko dira.

Fagor Ederlan Taldeak izaera pertsonaleko daturik ez zabaltzeko konpromisoa hartzen du horretarako interesatuen baimena eta lege derrigorrezkotasuna dagoenean izan ezik. Izaera pertsonaleko datuak sekula ezingo dira erabili lege helburu edo kontratuan aurreikusitakoetatik helburu ezberdinetarako.

9.2 Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babesa. Sekretu profesionala

Fagor Ederlan Taldeak informazioa eta ezagutza enpresa kudeaketarako bere aktibo nagusi eta ezinbestekotzat jotzen du, beraz babes berezia daukate.

Fagor Ederlan Taldeak daukan izaera ez publikoko informazioa, orokorrean, Informazio Konfidentzialtzat joko da.

Pertsonak Informazio Konfidentziala kontu handiz erabiliko dute eta babesteko neurri nahikoak jarriko dituzte, edukia ezin dakieke hirugarrenei erraztu, Pertsonaren edo kasu bakoitzean Fagor Ederlan Taldean eskuduntza duen organoaren babes berezia edo lege errekerimendu bat egon ezean.

Hirugarrenen informazioa legalki lortuko da. Pertsonak baztertu egingo dute zilegi ez den moduan edo bere jabe legitimoek mantentzen duten konfidentzialtasuna apurtuta lortutako informazioa.

Informazio Konfidentziala Fagor Ederlan Taldeetik kanpoko hirugarrenena denean, Pertsonak Fagor Ederlan Taldeak hirugarren horiekin harpidetuta dauzkan akordioak bete beharko dituzte.

Fagor Ederlan Taldearekin lan harreman ohikoa edo berezia amaitzen denean, Pertsonen konfidentzialtasun betebeharra mantenduko da eta hauek Informazio Konfidentziala biltegitratutako bitarteko edo dispositiboak bueltatu beharko dituzte.

9.3 Fagor Ederlan Taldeko ondare errealitatean egiazkotasuna eta zehaztasuna

- > Fagor Ederlan Taldeko informazio ekonomiko-finantzarioak zuzen islatuko du bere ondare errealitatea, kontabilitate printzipio orokorretan onartu eta aplikagarriak diren nazioarteko arauen informazio finantzarioaren arabera.
- > Inork ez du ezkutatu edo desitxuratuko Fagor Ederlan Taldeko erregistro eta kontabilitate txostenen informazioa, egiazkoa eta zehatza izango dena.
- > Fagor Ederlan Taldeak informazio fidagarria transmititzeko konpromisoa hartzen du Fagor Ederlan Taldearekiko leiala den irudia egiteko.



10. FAGOR EDERLAN TALDEAREN JABETZAREN BABESA ETA ERABILERA

10.1 Fagor Ederlan Taldeko aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua

Fagor Ederlan Taldeak Pertsonen eskura jartzen ditu jarduera profesionalerako beharrezko aktibo eta baliabideak, horien artean Fagor Ederlan Taldearen sistema eta ekipo informatikoak, instalazioak eta baliabide finantzarioak.

Pertsonak Fagor Ederlan Taldeko aktibo eta baliabideak erabilera desegokitik babestu eta zaindu beharko dituzte eta galdu, kaltetu, lapurreta edo Fagor Ederlan Taldearentzako kalteak eragin ditzakeenak ekidin.

Pertsonak Fagor Ederlan Taldeko aktibo eta baliabide horien erabilera arduratsua egingo dute, erabilera hori Fagor Ederlan Taldeko Kontrolak, arau eta jarraibideen arabera izanik, euren jarduera profesionala eraginkortasunez bete dezaten, Fagor Ederlan Taldeak bere esku jarritako denbora, aktibo eta baliabideak errentagarri eginda.

10.2 Segurtasun informatikoa eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa

Aktibo eta baliabideak gaizki edo zuhurtziarik gabe erabiltzeak Fagor Ederlan Taldea eta osatzen duten Pertsonentzako arrisku larria dauka. Beraz, Fagor Ederlan Taldeak segurtasun informatikoa zaindu eta software ez baimenduaren erabilera debekatzen du eta erabilera ilegala den edo sistema informatikoen segurtasunean edozein elementu arriskutsu sartzeko arriskua daukaten programa edo aplikazioen deskarga, instalazio eta erabilera debekatzen du.

Fagor Ederlan Taldea jabetza intelektuala, jabetza industrial eta enpresa sekretuak babestearekin konprometituta dago, bai bereak eta bai hirugarrenenak.

Pertsona guztiek errespetatu behar dituzte jabetza intelektuala, jabetza industrial eta enpresa sekretuen eskubideak, enpresa berarenak, osatzen duten Pertsonenak edo hirugarrenenak izanda ere. Beraz, Pertsona guztiek babestu behar dute eskubide horiek duten informazioa, kasu bakoitzean eskubide horien jabe legitimoen lizentziak edo baimenak bilduz.



11. KODEA APLIKATZEA. KOMUNIKAZIOAK ETA JARRAIPENA

11.1 Indarrean sartzea

Jokabide Kode hau indarrean dago Fagor Ederlan Taldeko Kontseilu Errektorean onartu zenetik, hau da 2017ko irailaren 22tik, eta indarrean mantenduko da berrikuspen, eguneratze edo ordezkaturko duen berri bat indarrean sartu ezean.

Edozein ez betetze, Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, Jokabide Kode honen zaintza eta bere aplikazio zuzenaren arduraduna baita.

Ez betetzeak Jokabide Kodea edo edozein Kontrol Compliance Program osatzen dutenak ez betetzea esan nahi du, beti ere jokabide irregular edo legez kanpokoaren bidez Fagor Ederlan Koop. E. edo bere Sozietate Kontrolaturen batdelitua egoztera eraman badezake

Fagor Ederlan Taldeak Pertsona guztien eskura jarriko ditu bere funtzio profesionala bete ahal izateko araudia eta legedi garrantzitsuenaren ezagutza eta ulermena, bai eta Kode honetan jasotako jokabide printzipioak ere.

11.2 Jokabide Kodearen interpretazioa

Jokabide Kode hau eta Compliance Program osatzen duten edozein Kontrolen arteko desadostasunen aurrean, Jokabide Kodeak du lehentasuna. Kontrolen interpretazioa Jokabide Kode honen espirtua eta azken helburua aintzat hartuta egingo da.

Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen interpretazioa. Bere interpretazio irizpideak derrigorrezkoak dira bere hartzaile guztientzako.

Jokabide Kodearen interpretazioaren gainean sortzen den edozein zalantza Betetze Batzordeak argituko du, Betetze zuzendariarekin izandako komunikazioaren bidez.

11.3 Betetze Batzordea

Betetze Batzordea, Fagor Ederlan Taldeko Betetze zuzendariak bideratzen du eta Betetzearen Funtzioa diren gai guztien arduraduna da. Betetze Batzordearen osaketa, funtzionamendua, funtzioak eta Betetze Batzordeari dagozkion gainerako gaiak Batzorde horren araudian erregulatzen dira.

Betetze Batzordeak Fagor Ederlan Taldearen Pertsonak derrigor bete beharreko Compliance Program osatzen duten kontrolen multzoa osatu eta proposatzen du.

11.4 Ez betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea

Jokabide Kode hau ez betetzeak lan isunak edo sozietarioak eragin ditzake, baita administratibo edo penalak ere.

Ez betetzearen berri duen edozein pertsonak zuzenean jakinarazi beharko du Kanal Etikoaren bidez. Ezagutzen den ez betetzea ez jakinaraztea Jokabide Kode honen ez betetzat joko da.

Jokabide Kodea edo Kontrolak urratzen dituen gertaera bat ezkutatzea ez da ulertuko Fagor Ederlan Taldearen intereseko jardura moduan.

Kanal Etikora dokumentu honen bukaeran agertzen diren Helbideen bitartez bidali ahal izango dira jakinarazpenak.

Jakinarazi duena Kanal Etikoan egindako komunikazioarekin erlazionatutako arrerapenen gainean informatua izango da.

11.5 Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

Fagor Ederlan Taldeak Pertsonak Kanal Etikora egiten dituzten komunikazioen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzen du.

Kanal Etikoaren erlazionatutako komunikazio eta prozedura guztiak datu pertsonalen babeserako araudiaren eskakizunak errespetatuta kudeatuko dira. Hala ere, Kanal Etikora jakinarazpenak egiten dituzten pertsonen datuak agintari administratibo edo judizialei eman ahal izango zaizkie komunikaziotik eratorritako edozein prozeduraren ondorio moduan eurek eskatzen badituzte.

Debekatuta dago Fagor Ederlan Taldea osatzen duen Pertsona baten aurka errepresalia edo edozein ondorio negatibo duen neurririk hartzea jakinarazpen bat egiteagatik. Jakinarazpen hori egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide Kode honen arau haustetzat joko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako errepresaliak debekatzeak ez du galaraziko diziplina neurriak hartzea, barruko ikerketak jakinarazpena faltsua dela eta fede txarrez egin dela ziurtatzen badu.

11.6 Jakinarazpenak tramitatzea

Kanal etikoaren bidez jasotzen diren jakinarazpen guztien erregistro bat mantenduko da.

Jakinarazpen bat jaso ondoren barruko ikerketa bat hasiko da, jakinarazpenak funtsik ez duenean edo Jokabide Kodea edo Kontrolen inguruko gaiez ari ez denean izan ezik. Kasu hauetan Jakinarazpena jaso izana eta ikerketa ez hasteko hartutako erabakiaren konstantzia utziko da dagokion Jakinarazpenen Erregistroan. Erabaki honek ez du galaraziko beranduago informazio gehigarria jasoz gero ikerketa bat hastea.

Egiten den barruko ikerketan, Betetze Batzordeak egokitzat jotzen duen Fagor Ederlan Taldeko edozein sail edo negozioko informazio edo jakinarazpenak begiratu ahal izango ditu.

Jakinarazpenak Betetze Batzordeko kideren bati eragiten dionean, honek ezingo du tramitazioan parte-hartu eta aurreko 6.4 atalean zehaztutako Interes Gatatzaren gaineko arauak aplikagarriak izango dira.

Prozedura hau Betetze Batzordearen ebazpen batekin amaituko da, eta ekintza zuzentzaile edo proposamen bat izango du hala badagokio Kontseilu Errektoreak edo dagokion administrazio organoak onartzeko. Proposamenak laneko lege aplikagarriak betez dagozkion diziplina neurriak ezarriko ditu eta bereziki, Langileen Estatutua eta aplikazioko hitzarmen kolektiboak eta/edo Fagor Ederlan Taldea osatzen duten eta pertsonen aplikagarriak zaizkien Barruko Erregimeneko araudia eta beste edozein arau sozio-laboral, hau guztia egon daitezkeen administrazio isun edo penalak kaltetu barik.

